

II. ERANSKINA

COVID-19AREN AURREAN PREBENTZIO ETA AKTUAZIO PROTOKOLOA

**GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN
FEDERAZIOA**

2020-URRIA

ARDURADUNA:

**ALICIA FIGUEROA DE LA PAZ
(Zuzendari teknikoa)**

KONTAKTUA:

635751339 /

alideporteadaptado@gmail.com

AURKIBIDE OROKORRA:

1- JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA EZARPEN EREMUA

- 1.1. JUSTIFIKAZIOA
- 1.2. HELBURUAK
- 1.3. EZARPEN EREMUA

2- PROTOKOLOAREN PERTSONA ETA ORGANO ARDURADUNAK

- 2.1. ERAKUNDEAREN OSASUN ARDURADUNA
- 2.2. ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA EDO ADMINISTRAZIO ORGANOA
- 2.3. INPLIKAZIOA DUTEN BESTE AGENTEAK

3- PREBENTZIO ELEMENTUAK

3.1. PREBENTZIO ETA HIGIENE NEURRI OROKORRAK

a) NEURRI ANTOLATZAILEAK

- GIPUZKOAKO ESKOLA KIROL EGOKITUKO EKE TALDEEN ANTOLAKUNTZA:
 - GIMNASIOAN
 - IGERILEKUAN

- b) ESKUEN HIGIENEA
- c) GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA
- d) ESPAZIO ETA INSTALAKUNTZEN AIREZTAPENA

3.2. MASKAREN ERABILERA

3.3. JARDUERAK: SAIOEN ANTOLAKUNTZA

- a) KONTAKTUAK MURRIZTEA
- b) KANPOKO JARDUERAK
- c) MATERIALAREN ERABILERA
- d) ALDAGELAK
- e) IKUSLEAK ETA PERTSONA LAGUNTZAILEAK
- f) AGURRAK ETA OSPAKIZUNAK

3.4. JARDUERAKIN LOTUTAKO BESTE ELEMENTUAK

- a) DESPLAZAMENTUAK
- b) DESBENTAILA SOZIALEAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA

4- COVID-19 KASUEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

- 4.1 FAMILIEN ETA GAINONTZEKO PERTSONALAREN EKITEA
- 4.2. ENTITATE ANTOLATZAILEAREN EKITEA
- 4.3. JARDUERA HASI AURREKO COVID-19 SINTOMAK
- 4.4. JARDUERA BITARTEAN COVID-19 SINTOMAK
- 4.5. ENTITATEKO FAMILIA EDO BESTE PERTSONEKIN KOMUNIKAZIOA

5- DIZIPLINA NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEKO KONTROLA

5.1. ARAU-HAUSTE MOTAK

- a) Arau-hauste arinak
- b) Arau-hauste larriak
- c) Arau-hauste oso larriak

6- PROTOKOLOAREN HEDAPENA ZEIN EZAGUTZA ETA HARTUTAKO NEURRIAK

6.1. HEDAPEN OROKORRA

6.2. KOMUNIKAZIO/SENTSIBILAZAZIO ESPEZIFIKOAK

- a) Entitate parte-hartzaileak.
 - Pertsonal teknikoa
 - Familiak
 - Kirolariak

7- PROTOKOLOAREN EBALUAZIO ETA JARRAIPENA

- 7.1. ZUZENDARITZA ORGANOAREN BILERAK
 - 7.2. ENTITATE PARTE-HARTZAILEETAKO OSASUN ARDURADUNEKIN BILERAK
 - 7.3. JARDUERA PROPIOETAKO PERTSONAL TEKNIKOAREKIN BILERAK
 - 7.4. REUNIONES DEL PERSONAL TÉCNICO CON LAS Y LOS DEPORTISTAS
-

1- JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA EZARPEN EREMUA

1.1. JUSTIFIKAZIOA

Bizi dugun ezohiko egoera berria dela medio, esparru guztietatik COVID 19ari aurre egin beharko zaio eta beraz, 2020-2021 ikasturtea dudarik gabe berezia izango da.

Eskola kirola ez da egoera honetan salbuetsita geratzen, ezta gutxiago ere. Argi dugu, gure adingabekoen kirol jarduerak bermatzea ezinbestekoa dela. Alde batetik, jarduera fisikoa egitea adin txikikoentzat beharrezkoa delako eta bestetik, osasun, sozializazio eta dibertsioaren ikuspegitik begiratuta, erregulartasunez egiteak inmunitate sistema indartzea dakarrelako. Horri esker, gaixotasunen prebentzioan eta sintomatologia arintzean hobekuntzak gertatzea ahalbidetzen da.

Eskola garaiko jarduera fisiko eta kirolaren ezaugarri propioek (instalazioak, materialak, harremanak, bidaiak eta taldean lo egitea, kirolarien adina) zailtasun handiak dakartzate **eskola kiroleko programak** eta egungo krisi sanitarioa bezalako egoerak bateratzeko garaian.

Horregatik, kirol jarduerak garatuko dituzten entitate antolatzaileek prozedura zehatz batzuk ezarri behar dituzte kirolarien, pertsonal teknikoaren eta gainontzeko agenteen arteko kutsatze arriskua murrizten saiatzeko. Protokolo honetan ageri diren prozedurek hortaz, kirol jardunaren baldintzak aldatzen dituzte pandemia honen aurrean segurtasun handiagoz aritu ahal izateko.

Modu horretan, funtsezkoa da entitate parte-hartzaileek eta kirolari, familia, tekniko zein entitate horiek osatzen dituzten beste agenteek jarrera ulerkorra izatea kirol jarduera programetan. Urte berezi bat da aurtengoa, jarduera egokitu edo ezberdinez osatua, beraz guztion kontzientziazioa behar beharrezkoa da. Errealitate honen aurrean, jarduera fisikoak edo kirol jarduerak garatzeko asmoa izanez gero, argi izan behar dugu, gure eskuetan dauden baldintzarik onenak ezarriko direla.

Protokolo honetan azaltzen diren neurriek osasun agintariak eta kirol administrazioek ezarritako ildo zein arauak jarraitzen dituzte. Hala eta guztiz ere, pandemiaren intzidentziaren eta instituzio eskudunek hartutako erabakien menpe egongo dira horiek guztiak.

Azkenik, protokolo honen ezarpen egokia, eta beraz, kirol jarduerak segurtasunez egin ahal izateko, entitate zein pertsonen aldetik ardura indibidual eta kolektibo handia behar da: familiak, kirolariak, teknikoak, entitateko pertsona arduradunak, etab.

1.2. HELBURUAK

Protokolo honekin entitateak duen helburu nagusia honakoa da:

- Kirol entitateak antolatutako jarduerak baldintza seguru batzuetan garatzea, beharrezko prebentzio eta higiene neurriak ezarri, COVID-19ari lotutako egoerak eta kasuen detekzioen aurrean beharrezko jarraibideak jarraituz.

Helburu jakin hori lortzeko funtsezkoa da bigarren helburu bat:

- Protokoloa ezagutaraztea eta informazioa helaraztea entitate zein pertsona parte-hartzaileei eta protokoloarekiko kontzientziazioa sustatuz, kirol praktika seguru bat

egitea.

Horrela, protokolo honetako helburuen, neurrien eta orientabideen komunikazio/hedapen egokia ezinbestekoa da, baita jarraipen bat izatea ere, horien etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko, eta behar izanez gero, aurrez aurre ditugun eta aldagarriak zein berriak diren aldagaiei egokitzapen bat egiteko.

1.3. EZARPEN EREMUA

Protokolo hau entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Eskola Kirol Programen** markoan antolatutako edozein motatako jardueretan ezarri beharko da: lehiaketa, irakaskuntza, detekzioko, aisialdiko edo kulturalak diren jarduerak.

Halaber, Eskola Kiroleko programatik aparte antolatutako jarduerak izanez gero, baina entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena badu, protokoloren ezarpena egin beharko da.

2- PROTOKOLOAREN PERTSONA ETA ORGANO ARDURADUNAK

2.1. ERAKUNDEKO OSASUN ARDURADUNA

Pertsona hau izango da protokoloaren arduradun teknikoa eta bere dinamizazio eta funtzionamendu egokiaz arduratuko dena.

Pertsona honek instituzioek figura honetarako Euskal Kirol Eskolaren bidez garatutako formakuntza izan behar du.

Bere funtzioak, modu espezifikoago batean, ondorengoak dira:

- **BERRI EMAN:** entitate barnean dauden langile edo boluntario guztiei eta jardueretan parte hartzen duten entitateei, prebentzio, ekite eta, behar izanez gero, diziplina neurriak helaraztea. Bai uneko informazioa eta baita geroago etor daitekeen edozein aldaketa.
- **GAINBEGIRATU:** entitateak berak antolatutako jardueretan, pertsonal teknikoak jarduerak hasi aurretik, protokoloaren ezaguera, onarpena eta konpromisoa barneratzen dituen dokumentua sinatu beharko du.
- Protokoloan agertzen diren prebentzio zein higiene neurriak eta autoritate eskudunek ezarritako beste edozein arau betetzen direla bermatzeko **ETENGABEKO GAINBEGIRAKETA** garatzea antolatutako jardueretan.
- Osasun agintariekin eta/edo erakunde parte-hartzaileekin edo COVID-19 kasuen detekzioak eragindako pertsonekin edo jardueren garapenean sintomak erakusten dituen pertsonekin beharrezko ekitea **KOORDINATU** eta komunikazioa **GARATZEA**.

- Erakundeak antolatzen dituen joko edo jardueretan COVID-19k eragindako arriskuekin lotutako arauak eta/edo arau-haustek erregelamenduetan/arautegietan sartzeko PROPOSAMENAK GARATZEA, eta zuzendaritza edo gobernu organoari bidaltzea, honek onar ditzan.
- Protokoloa betetzen ez bada, dagozkion diziplina-neurrien aplikazioa PROPOSATZEA.
- Behar diren KUDEAKETAK EGITEA, protokoloari lotutako informazioa erakundearen webgunean jasota egon dadin. Bai jatorrizko informazioa, bai ondorengo edozein aldaketa.
- Erakundeak zuzenean antolatutako jardueretan aldagelak, laguntzaileentzako sarbide baimenak edo antzekoak erabiltzeko SALBUESPENAK EZARTZEA.
- Protokoloari buruzko EDOZEIN INFORMAZIO-ESKAERARI ERANTZUTEA.
- Protokoloaren EBALUAZIO IRAUNKORRA egitea eta, hala badagokio, erakundearen zuzendaritza edo administrazio organoari doikuntza proposamenak bidaltzea.

Erakunde antolatzaileak jarduerak garatzen baditu eta jarduera horietan izena emateko prozesua zuzenean **familia/kirolariekin** egiten bada, erakunde parte-hartzaileekin loturarik izan gabe, osasun arduradunak honako eginkizun hauek izango ditu:

- **Familiaren sinadura eta erakundeari protokoloaren ezagutza, onspen eta konpromiso dokumentua bidali gabe, adin txikiko pertsona jardueran parte hartzen hasi ez dadin gainbegiratzea.**
- **COVID-19 kasu bat detektatzen bada, edo jarduerak egin bitartean sintomak dituen pertsona bat detektatzen bada, jarduketa koordinatzea eta familiekin komunikazio egokiak garatzea.**

Gaur egun, erakundearen osasun arduraduna honako hau da:

- ALICIA FIGUEROA DE LA PAZ (Zuzendari teknikoa)
- KONTAKTUA: 635751339 / alideporteadaptado@gmail.com

2.2. ERAKUNDEAREN ZUZENDARITZA EDO ADMINISTRAZIO ORGANOA

Erakundearen zuzendaritza edo administrazio organoak eginkizun hauek izango ditu:

- Erakundeko osasun arduraduna izendatzea.
- Protokoloa eta, hala badagokio, ondorengo aldaketak onartzea.
- Erakundeak antolatutako joko edo jardueretan, COVID-19ak eragindako arriskuekin lotutako arauen eta/edo arau-hausteei dagokienez, erregelamenduetan/arautegietan aldaketak egiteko proposamenak onartzea eta, hala badagokio, Foru Aldundiari igortzea.
- Protokoloa betetzen ez bada, dagozkion diziplina neurriak ezartzea.

2.3. INPLIKAZIOA DUTEN BESTE AGENTEAK

Protokoloa behar bezala eta segurtasunez aplikatzeko, ezinbestekoa da, halaber, jardueretan parte hartzen duten erakunde inplikazioa, eta, bereziki, erakunde horietako osasun arduradunena. **Pertsona horiek beren kirol erakundea osatzen duten pertsonen artean protokoloarekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa zabaltzea izan behar dute helburu.**

Izena emateko prozesua pertsonak edo familiek beren kabuz zuzenean egiten duten jardueretan (beste erakunde batzuen bitartekaritzarik gabe), funtsezkoa da teknikarien, kirolarien eta haien familien konpromisoa.

Pertsona horiek kontuan hartu beharreko funtzioak eta beste alderdi batzuk eranskinetan daude, figura edo kolektibo horietako bakoitzerako sortu den informazio materialean.

3- PREBENTZIO ELEMENTUAK

3.1. PREBENTZIO ETA HIGIENE NEURRI OROKORRAK

a) ANTOLAKUNTZA NEURRIAK:

GKEF-ak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako udal askorekin batera, antolatzen duen Eskola Kirol Egokituaren programa hainbat kirol instalazio, ikastetxe eta/edo udal-instalazioetan gauzatzen da: Donostia, Irun, Hondarribia, Zarautz, Zumaia, Andoain, Tolosa, Villabona, Beasain, Legazpi, Urretxu, Lazkao eta Ordizia.

- Udalerrri bakoitzean, instalazio bakoitza arautzen duen araudira egokituko gara; hala ere, GKEF-ak programa honetarako duen protokoloaren jarraibide komun eta orokor batzuk azal ditzakegu:

PROGRAMAN JARRAITU BEHARREKO JARRAIBIDEAK – ESKOLA KIROL EGOKITUA -

○ GIMNASIOAN:

- Taldeak 4 eta 8 erabiltzaile artean murriztuko dira, eta talde bakoitzeko gutxienez bi monitore egongo dira (taldearen laguntza zein beharren arabera).
- Haur edo gazteren batek gidari edo laguntzaile gisa pertsona baten laguntza behar badu, biek eraman beharko dute maskara elkarrekin dauden une guztietan.
- Haurrak edo gazteak ezin badu maskara eraman, duen desgaitasuna dela medio, maskara ez eramatea baimenduko da. Baina, hori dela eta, haren begiraleak babes maila handieneko maskara batekin babestu beharko du bere burua.
- Haur edo gazte bakoitzak bere maskara jantzita, bere ur-botilatxoa, bere toalla, maskara-eramaile bat eta bere motxilan aldatzeko zapatilak ekarri beharko ditu barruko jarduerarako. Gainera, instalaziora etorri aurretik gorputzeko tenperatura hartu beharko dute, eta 37.3°C baino gehiago izanez gero, ezin izango da jarduerara sartu.
- Haur eta gazteek zain dauden bitartean distantzia sozialari eutsi beharko diote eta instalazio bakoitzeko kirol eremura iritsi arte esleitutako ibilbidetik banan-banan sartuko dira (aldez aurretik kaleko zapatilak, makuluak, ibiltariak edo gurpil-aukiak garbituz eta aldez aurretik eskuak garbituz). Irogailua hartu behar izanez gero, kontuz eta ahalik eta gutxien ukitutuz egingo da, eta beharrezkoa izanez gero, laguntzaile batekin bakarrik.
- Gelan sartu aurretik, haur eta gazteei komunera joatera gonbidatuko zaie ordenan eta distantziak mantenduz betiere.
- Instalazioaren barruan daudenean, zapatilak aldatu beharko dituzte eta aulkien, ibiltarien edo makuluaren gurpilak berriro higienizatu beharko dituzte. Horretaz aparte, bakoitzak bere motxila horretarako zehaztutako eremuan utzi beharko du eta oso garrantzitsua da bere maskara monitoreak gomendatu bezala uztea, maskara ontzian edo zinta berezi bat erabiliz bere lepoan zintzilikatuta.
- Ondoren, maskararik gabe daudela, distantzia soziala gordez borobilean itxarongo dute solasean eta agurtzen ari diren bitartean.
- Jarduera hasi aurretik, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dira, eta monitoreak ikuskatuko du saioan erabiliko den materiala aldez aurretik garbi, ordenatuta eta desinfektatuta dagoela, GKEF-ak emango duen desinfektatzailearekin eta paperarekin.
- Jarduera maskararik gabe egingo da, baina distantzia soziala gordez. Egingo diren jarduerak ezaugarri zehatzak izango dituzte, eta honako hauek lehenetsiko dira:
 - Banakako jarduerak.
 - Materiala indibidualki manipulatu egindako jarduerak.
 - Talde jarduerak distantzia soziala gordez.
 - Jarduerak espazio mugatuan lurzoruan, horman, espalderan edo koltxonetan (aldez aurretik desinfektatuta).
 - Binakako jarduerak objektuak manipulatu eta distantzia errespetatzen (pikak, sokak, zintak,

zapiak, etab.).

- Aire zabaleko jarduerak (ahal den guztietan).
- Begiraleak adierazitako material propioarekin egindako jarduerak.

- Saioaren ondoren, distantzia sozialari eutsiz zirkulu bat egingo da eta jardueraren inguruan hausnartuko da. Agurtu ondoren, materialak ordenaren arabera jasoko dira, eskuak eta materiala berriro desinfektatuko dira eta maskarak jarriko dira.
- Gauza pertsonalak jaso, komunera joan ahalko da ordena zorrotz mantenduz eta instalaziotik irten ahal izango da, sartu diren modu berean, hau da, instalazio bakoitzak ezarritako zirkuitu markatutik.

○ **IGERILEKUAN::**

Taldeak 4-6 pertsonakoak izango dira, eta gutxienez bi monitore.

- *Instalazioan sartzeko prozedura, instalazio guztietan ezarrita dagoen prozedura orokorra izango da:*
 - Haur edo gazte bakoitzak gorputzeko tenperatura hartu beharko du jarduerara etorri aurretik, eta ezingo da sartu 37.3°C baino gehiago badu.
 - Autonomoak diren haur edo gazteek instalazio bakoitzak bere aldageletarako ezarrita dituen edukiera arauak beteko dituzte.
 - Aldageletan laguntza behar izanez gero, egokitutako aldageletan senide bat izango da laguntzailea eta beharra duten taldeko gainerako familiekin koordinatuko dira.
 - Maskara jantzita, ur-botilatxoa, toalla, txankletak, txanoa, betaurrekoak eta bainujantzia ekarri beharko ditu. Horrez gain, motxilaren barruan maskara gordetzeko poltsatxo bat eta aldatzeko arropa.
 - Haurrak eta gazteak ordu berean iritsiko dira, eta itxaroten duten bitartean distantzia sozialari eutsi beharko diote, banan-banan sartzeko instalazio bakoitzean esleitutako ibilbidetik aldageletara iritsi arte (aldez aurretik kaleko zapatilak, makuluak, ibiltariak edo gurpildun aulkiak eta aldez aurretik eskuak garbituz). Igogailua hartu behar izanez gero, kontuz eta ahalik eta gutxien ukitutuz egingo da, eta beharrezkoa izanez gero, laguntzaile batekin bakarrik.
 - Aldagelatik igerilekurako bidean, maskara ere eraman beharko dute, eta toailaren ondoan utzi, horretarako izendatutako igerilekuko eserlekuren batean. (Igerileku bakoitzeko araudiak betez noski).
 - Haur edo gazteek dependentzia maila dela eta, kontaktu zuzena behar izanez gero, bai aldagela eta baita uretan, maskarak eramango dituzte.
 - Desgaitasuna duen haur edo gazteak maskara eramaterik ez badu, maskara ez eramatea baimenduko da. Baina arduradun teknikoak beharrezko babes neurriak hartu beharko ditu.

- Erabiliko den materiala GKEF-ak instalazio bakoitzerako izendatzen duena izango da, eta monitorea izango da hura desinfektatzeko arduraduna. Materiala gordetzeko lekuari dagokionez, instalazio bakoitzak adostutakoa izango da.
- Medikuaren aginduz neoprenoa eraman behar duten haur edo gazteek mediku ziurtagiria aurkeztu beharko dute alde zurretik.
- Uraren barruan, maskararik gabe igeri egin ahal izango da, monitorea maskara batekin uraren ertzean dagoen bitartean.

Monitoreak uretan sartu behar badu, erabiltzaileak duen dependentzia mailagatik, uretarako maskara egokia eraman beharko du.

b) ESKUETAKO HIGIENEA

Eskuen higienari buruzko araudiaren arabera, ziurtatuko da pertsona guztiek eskura izango dituztela uneoro, jardueraren lekuan eta leku komunetan (sarrerak, komunak, gimnasioak eta igerilekuak) ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera, eta, posible ez bada, gel hidroalkoholikoak.

Era berean, jarduera motaren eta beste kirolari edo material batzuekiko kontaktuaren arabera, gomendagarria izan liteke, jarduerak irauten duen bitartean gel hidroalkoholikoarekin eskuak desinfektatzeko atsedendia egitea.

c) GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

Era berean, ontzi egokia jarriko da erabilitako babeserako diren materialak (maskarak edo erabilitako papera) behar bezala botatzeko.

d) ESPAZIO ETA INSTALAKUNTZEN AIREZTAPENA

Ahal den guztietan, espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barruko airea berritzen lagundu eta ahal den neurrian kanpoko airea sartzen uzteko. Horrekin batera birzirkulazioa minimizatuz eta barruko aire korronteak saihestuz.

Ahal den guztietan, eta eguraldiak laguntzen badu, kanpoko jarduerak ere programatuko dira.

3.2. MASKARAREN ERABILERA

Maskarak uneoro erabili beharko dira, osasun agintariek ezarritakoari jarraituz.

Kirolariek ez dute nahitaez erabili beharko kirola egiten duten bitartean. Hala ere, distantzia soziala errespetatzen ez den jardueretan maskara erabili beharko da.

Hitzaldi teknikoetan, kirolariek maskarak erabili beharko dituzte derrigorrez. Hala ere, entrenamenduetan ematen diren taldeko azalpenetan esaterako, kirolariak maskararik gabe egongo dira eta beraz, uneoro errespetatu beharko dira segurtasuneko pertsonen arteko distantziak.

Era berean, maskara erabili beharko da edo pertsonen arteko distantzia ziurtatzeko mekanismoak nahitaez erabili beharko dira: jarduera hasi eta parte hartzeko zain dagoen egoeretan, parte hartzea bukatu duen baina jarduera oraindik amaitu ez den egoeretan, kirolarien parte hartzea aldizkakoa den jardueretan, atsedean uneetan eta kirola egiten ez den guneeetan.

Teknikariek maskara eraman beharko dute etengabe, beren jarduera behar bezala egin ahal izateko ahalegin fisiko handia egin behar duten jarduera edo egoeretan izan ezik.

Entrenamenduetako saioetan jarduera fisikorako erabiltzen den denbora tartetik kanpo, kirolariek eta talde teknikoko kideek maskara nahitaez erabili beharko dute, baita kirol instalazio edo espazioen esparru osoan dauden beste pertsonak ere.

Betebehar horiek betetzetik kanpo egongo dira, osasun agintariek baimendutako kasuetan (arnasketa arazoak, desgaitasun zehatzak dituzten pertsonak, etab.).

Kirolariek eta teknikariek jarduera osoan zehar edo partzialki maskara kendu behar duten kasuetan, beren izena daraman zorro bat eraman beharko dute maskara bertan gordetzeko, nahasteak saihesteko edo lepotik zintzilik eramateko.

3.3. JARDUERAK: SAIOPEN ANTOLAKUNTZA

a) KONTAKTUAK MURRIZTEA

Jarduera saioetan ahal den neurrian kontaktu kopurua murrizteko, ondorengoak egingo dira:

- Ahalik eta pertsona gutxien, eta beti, gehienez zortzi pertsonako talde edo azpitaldeetan, jarduera gauzatzeko behar diren teknikariak barne hartuta.
- Ahalik eta modu indibidualizatuenean eta, ahal dela, egin beharreko ariketetan pertsonen artean gutxieneko segurtasun distantzia eusten saiatuz (distantzia gaur egun 1,5 metrokoa da).
- Teknikariek azpitalde egonkorak ezarriko dituzte, eta, ahal den neurrian, ikasgeletako talde egonkorak errespetatuko dira.

b) KANPOKO JARDUERAK

Posible den guztietan, jarduerak kanpoan egingo dira.

c) MATERIALAREN ERABILERA

Ahal den neurrian, materialak partekatzea saihestuko da.

Jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komuneko materialei gomendatutako higie eta garbiketa neurriak aplikatuko zaizkie.



Ezingo da inolaz ere ur botilatxorik partekatuta, eta kirolari bakoitzak bere botilatxoa eraman beharko du, bere izena nabarmenki markatuta, gaizki ulertuak saihesteko.

Saioan erabili behar den eta kirolarien artean nahasteak eragin ditzakeen beste edozein kirol material edo banakako material osagarrirekin (eskuoihalak, petoak, etab.) modu berean jardun beharko da. Horrez gain, ezin izango dira partekatuta elikagaiak, bestelako edariak, zapiak edo antzeko elementuak. Hortaz, horiek indibidualki erabili beharko dira.

Botikineko materiala erabiltzen denean, erabili eta botatzeko eskularruak eraman beharko ditu beti sendatzaile rolean arituko den pertsonak.

d) ALDAGELAK

Debekatuta dago aldagelak erabiltzea, egoerak hala eskatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra, beste herri batzuetan bizi diren eta joan etorri luzeak egin behar dituzten haur eta gazteak, uretako jarduerak, etab.). Tokiko taldeak eta bisitariak dauden partidetan, erakunde antolatzaileko edo tokiko erakunde parte-hartzaileko osasun arduradunak ezarriko ditu neurri horren salbuespenak.

Neurriak ezarri behar badira, erakunde antolatzaileko osasun arduradunak, jardueraren teknikariekin lankidetzan, babes arauak eta pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatuko dituen sistema bat ezarriko du. Txandak egin behar izanez gero, jarduerak garatzeko ezarritako azpitalde egonkorrak hartuko dira kontuan.

Hala, saioen edo lehiaketen aurretik, bitartean edo ondoren antolatu nahiko liratekeen hitzaldi teknikoak, baldintzek ahalbidetzen badute, joko eremuan bertan edo kirol instalazioetako harmailetan egingo dira, aldagela edo espazio txikiagotan egin beharrik gabe.

e) IKUSLEAK ETA PERTSONA LAGUNTZAILEAK

Ezingo da ez lehiaketa, ez jardueretan parte hartuko duten horietatik aparte, ikuslerik edo bestelako pertsonarik bertaratu.

Kirolariak, eskola lizentzia duten eta dagokien jardueran ofizialki izena emanda dauden teknikariak, osasun arduradunak eta dagokion administrazioan horrela egiaztatuta dauden kirol erakundeetako eskola kiroleko arduradunak, jarduerak egiten diren kirol instalazioetako langileak edo administrazio publikoek baimendutako beste pertsona batzuk soilik sartu ahal izango dira kirol eremura.

Adin txikiko kirolariek jarduerak irauten duen denbora tartean bakarrik egon beharko dute kirol guneetan. Jarduerak amaitutakoan, ezin izango dira kirol gunean geratu.

Adingabeak jardueretara laguntzen dituzten pertsonak instalazio edo espazioetako ateetan utzi edo jaso beharko dituzte adingabeak. Arropa edo antzeko zerbait aldatzeko ezinbestean laguntzaren bat behar duten kasuetan, zuzenean edo teknikarien bitartez, erakunde antolatzaileko osasun arduradunarekin harremanetan jarri beharko dute, dagokion oniritzia lortzeko.

f) **AGURRAK ETA OSPAKIZUNAK**

Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak edo ospakizunak.

3.4. JARDUEREGIN LOTUTAKO BESTE ELEMENTUAK

a) **DESPLAZAMENTUAK**

Posible den guztietan, jardueretara egiten diren joan etorriak aktiboki egitea gomendatzen da (oinez, bizikletaz, patinetean), ahal dela banaka, edo modu horretan ezinezkoa balitz, familia unitateka egitea gomendatzen da.

Familia unitate desberdinetako pertsoez osatutako ibilgailuak erabiltzen badira desplazamenduetarako, desplazamenduen arloan eskumena duen administrazioak ezarritako arauak bete beharko dira.

b) **DESBANTAILA SOZIALEAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA**

Erakundeak, ahal duen neurrian, neurriak ezarriko ditu baliabide gutxien dituzten eta COVID-19ren pandemiak ekonomikoki kaltetu dituen familiek kirol jarduerak egiten jarraitu dezaten.

4- COVID-19 KASUEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

4.1. FAMILIEN ETA GAINONTZEKO PERTSONALAREN EKITEA

COVID-19ren ohiko sintomaren bat, hala nola, 37.3^otik gorako sukarra, hotzikarak, eztula, aire-faltaren sentazioa, usaimena eta dastamena gutxitzea, eztarriko mina, giharretako mina, ahultasun orokorra, beherakoa edo goragalea duten erakundeko kirolariek eta gainerako langileek ez dute jarduerara joan beharko. Berdin egin beharko dute, COVID-19ren ondorioz isolatuta dauden edo etxean konfinatuta dauden pertsonak eta sintomak edo COVID-19 gaitza diagnostikatuta duen pertsonaren batekin harreman estua izan duten pertsonak.

Erakunde antolatzaileak jarduerak garatzen baditu eta jarduera horietan izena emateko prozesua erakunde parte-hartzaileekin harremanik izan gabe, hau da, zuzenean familia/kirolariek egiten bada, erakunde parte-hartzaileetan jarduten duten kirolarien guraso edo tutoreek kirol jarduerak antolatzen diren egun horietako bakoitzean, jarduera hasi aurretik, parte-hartzaileek COVID-19ren sintomarik ez dutela egiaztatu eta ziurtatu beharko dute

Era berean, **etxean (adingabea edo beste pertsona bat) norbait COVID-19rekin diagnostikatu bada, jarduerak garatzen dituen erakunde parte-hartzaile eta bere erreferentziazko osasun zentroa ohartarazi beharko dute**, eta kasu horretan, semea edo adingabea etxean ardurapean

geratu beharko da. **Familiak aipatutako alderdi guztiak betetzeko, ikasturte hasieran parte hartzen duen kirol erakundearekin konpromiso bat hartuko dute idatziz.**

Baldintza eta idatzizko konpromiso hori bera teknikari eta erakundeko eskola kiroleko jardueretan parte hartzen duten gainerako pertsoneri eskatuko zaie. Erakunde antolatzaileak jasoko ditu teknikarien konpromiso eta jardueren antolamendu agiriak (hastapena, teknifikazioak, etab.).

4.2. ENTITATE ANTOLATZAILEAREN EKITEA

- COVID-19 KASU BAIEZTATUAK

Erakundeak antolatutako jarduera batean parte hartzen duen kirolari batek edo bere langile teknikoren batek Covid-19an positibo ematen duenean:

Lehenengo urratsa: pertsona hori taldetik aldentzea eta instalazioak horretarako eskuragarri duen lekuan isolatzea. Hori ezinezkoa balitz, senitartekoak instalaziotik kanpo itxarongo ditugu.

Bigarren urratsa: osasun arduradunari deitzea.

Hirugarren urratsa: erakunde antolatzaileko osasun arduradunak Osakidetzako zerbitzuetara bideratuko du kasua, dagozkion osasun protokoloak aplikatzeko.

Era berean, erakunde antolatzailearen osasun arduraduna osasun agintaritzarekin kontaktuan jarriko da (“rastreadoreak”) eta hala badagokio, kontaktua izan duen pertsonen informazioa emango du.

4.3. JARDUERA HASI AURREKO COVID-19 SINTOMAK

Babes neurri gisa, kirol talde bateko pertsona batek sukarra badu edo COVID-19ren sintoma nabarmenak baditu saioa hasi aurretik, ondorengoa egingo da:

- Jarduera saioak bertan behera geratuko dira erakunde antolatzaileko osasun arduradunak osasun agintariekin kontaktatu eta oniritzia eman arte.

4.4. JARDUERA BITARTEAN COVID-19 SINTOMAK

Kirol jardueran gaixotasunaren sintomak egon daitezkeen susmoa badago (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.), jardueraren antolakuntzako langileek edo teknikariek erakunde antolatzaileko osasun arduradunari jakinaraziko diote.

Izen ematea kirol erakunde bidez egiten den jardueren kasuan, eta jarduera horietan hainbat kirol erakundetako pertsonak parte hartzen badute, erakunde parte-hartzailearen osasun arduradunak edo, halakorik ezean, jardueraren teknikariek, erakunde antolatzailearen osasun arduradunaren laguntzarekin, familiari jakinaraziko diote kirolaria jasotzera etortzeko. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan egoera baloratuko da.

Egoeraren balorazioa egin arte, pertsona isolatuta mantenduko da horretarako izendatuta dagoen lekuan eta familia etorri bitartean instalaziotik kanpo itxaron beharko da.

Gaixotasunaren sintomak kirol erakundeko gainerako langileetan agertzen badira, haien etxera joan beharko dute eta gomendio berberak jarraitu.

Erakunde antolatzaileak jarduerak garatzen baditu eta jarduera horietan izena emateko prozesua zuzenean familia/kirolariekin egiten bada, erakunde antolatzailearen osasun arduradunak berak jakinaraziko dio familiari kirolaria jaso dezan.

Egoeraren arabera, erakunde antolatzaileko osasun arduradunak baloratuko du jarduera une horretan bertan eten behar den, edo garatzen jarraitu ahal izango den. Bigarren kasu horretan, prebentzio eta higiene neurriak ahalik eta gehien zorrozteko eskatuko zaie jardueraren antolatzaile eta teknikariei: jarduerak egokitzea (kontakturik gabe) eta pertsonen arteko distantzia are gehiago handitzea, nahitaezko maskara erabiltzea (intentsitate txikiko jarduerak egitea), eskuetako eta gorputzeko beste elementu batzuetako higiene maiztasun handiagoa, etab.

4.5. ENTITATEKO FAMILIA EDO BESTE PERTSONEKIN KOMUNIKAZIOA

Erakundearen barruan COVID-19arekin lotutako kasu edo egoera bat gertatzen bada eta horren berri familiei edo erakundeko beste agente batzuei ematerako garaian, aldez aurretik ezarritakoari jarraituz, osasun agintariak, erakunde antolatzaileak berak edo parte-hartzaileak egingo dute. Bigarren kasu horietan, erakundeko osasun arduraduna izango da beti eginkizun horretaz arduratuko dena (teknikariak ez).

5- DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HORIEK BETETZEAREN KONTROLA

Kirol entitateak Barne Araubideko erregelamenduan sartu ditu protokolo honetan ezarritako arauak ez betetzearekin lotutako arau-hauste batzuk, bai eta kutsatzeko aukera ematen duten portaera edo jarrerai lotutako beste batzuk ere.

5.1. ARAU-HAUSTE MOTAK

a) Arau-hauste arinak:

- Jardueran edo kirol espazioetan agintariak eta entitateak maskararen erabilerari buruz ezarritakoa ez betetzea.
- Eskueta higiena eta jarduerarako ezarritako gorputzeko bestelako elementuak ez garatzea.
- Nahita, ezarritako babes-mekanismoa erabili gabe doministiku egitea.
- Behin eta berriz lurrera edo instalazioko beste gainazal batzuetara listua,

mukiak edo antzekoak botatzea.

- Beste pertsona baten kirol materiala erabili edo partekatzea, egoera hori debekatu denean.
- Arrisku bereziko banakako materialak nahita beste pertsona batekin partekatzea (ur-botilatxoak, toallak, zapiak, etab.).
- Hasiera eta bukaerako agurrak edota zerbait ospatzeko momentuetan nahita kontaktu fisikoa erabiltzea.
- Dagokion jardueratik kanpo, kirol instalazioan egotea.
- Aldagelak baimenik gabe erabiltzea, nahita.

b) Arau-hauste larriak:

- Jardueran edo kirol espazioetan agintariak eta entitateak maskararen erabilerari buruz ezarritakoa behin eta berriz ez betetzea.
- Eskuetako eta gorputzeko beste elementu batzuetako higiena behin eta berriz ez garatzea.
- Behin eta berriz doministiku egiterakoan ezarritako babes-mekanismoa ez erabiltzea.
- Kirol praktika egiteko beste pertsona batengana gehiegi eta haren borondatearen kontra gehiegi hurbiltzea, beharrezkoa ez den kasuetan.
- Beste pertsona baten kirol material pertsonala erabiltzea egoera hori debekatu denean eta haren baimenik gabe.
- Behin eta berriz arrisku bereziko banakako materialak nahita beste pertsona batekin partekatzea (ur-botilatxoak, toallak, zapiak, etab.).
- Teknikarien edo kirol entitateko edozein arduradunen zuzeneko jarraibideak ez betetzea, kutsatzeko arriskua ekar dezaketen egoeretan.
- Hasiera eta bukaerako agur eta ospakizunetan nahita behi eta berriz kontaktu fisikoa erabiltzea.
- Dagokion jardueratik kanpo, behin eta berriz kirol instalazioan egotea.
- Aldagelak baimenik gabe erabiltzea, nahita behin eta berriz.
- Haur edo beste pertsona bati iseka edo mespretxua egitea COVID-19 jasan izanagatik.
- Bost arau-hauste arin pilatzea.

c) Arau-hauste oso larriak:

- Jardueran edo kirol espazioetan agintariak eta entitateak maskararen erabilerari buruz ezarritakoa behin eta berriz nahita ez betetzea.
- Nahita, ezarritako babes-mekanismoa erabili gabe beste pertsona bati doministiku egitea.
- Kirol praktika egiteko beste pertsona batengana gehiegi eta haren borondatearen kontra behin eta berriz gehiegi hurbiltzea, beharrezkoa ez den kasuetan.
- Nahita beste norbaiten arrisku bereziko banakako materiala erabiltzea (ur-botilatxoak, toallak, zapiak, etab.).
- Teknikarien edo kirol entitateko edozein arduradunen zuzeneko jarraibideak ez betetzea, kutsatzeko arrisku handia ekar dezaketen egoeretan.

- COVID-19arekin lotutako sintomekin kirol jarduerara joatea, behar diren neurriak hartu gabe edo hartutako konpromisoak bete gabe.
- Kirol entitateko kide den pertsona edo bere bizikidetzaren unitateko beste pertsona bat COVID-19arekin kutsatua edo hari lotutako sintomekin dagoela ez jakinaraztea .
- Haur bati edo beste pertsona bati jazarpena edo bullying-a egitea, COVID-19 sufritzeagatik edo egoera horri buruzko bulu bat zabaltzeagatik.
- Hiru arau-hauste larri pilatzea.

Ezarri beharreko zehapenak barne araubidean arau-hauste mota bakoitzerako ezarritakoak dira.

Era berean, lanari lotutako pertsonen arau-hausteen kasuan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan edo tresna negoziatu baliokidean xedatutakoa hartuko da.

Osasun- arduradunak arau-hauste horien eta dagozkien zehapenen berri emango die familia eta teknikariei. Halaber, teknikariek kirolariei azalduko dizkiete, arauak betetzearen garrantzia eta balio hezitzailearen berri emanez.

6- PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIEN BERRI EMATEA

Gutziz beharrezkoa da protokolo honen eta hartu beharreko neurrien berri ematea eragiten dien pertsona guztiei. Horretarako, hedapenerako eta ezagutzarako entitateak baliabide hauek erabiliko ditu:

6.1. HEDAPEN OROKORRA

- Oro har, mezu elektronikoa bat bidaliko zaie jardueretan parte hartzen duten erakunde guztiei (eta kirolarien familiei, zuzenean erakunde parte-hartzaileen bitartekaritza gabe antolatzen diren jardueren kasuan), bai eta lanbidez edo borondatez, erakundearen egituraren parte hartzen duten pertsona guztiei ere, protokolo honen onspenaren berri eman eta laguntza eskatuko zaielarik benetan aplikatu dadin. Lotura bat erantsiko zaio bai Protokoloari bai familia, kirolari, teknikari eta arbitraje kidegoarentzat sortutako dibulgazio materialari.
- Federazioaren webgunean, leku berezi batean, honako hauek erraztuko dituen gune espezifiko bat sortu da:
 - Erakundeko Osasun Arduradunaren identifikazioa eta harekin zuzenean harremanetan jartzeko modua (telefonoa eta posta elektronikoa).
 - Jardueretan eta lehiaketetan parte hartzen duten erakundeetako osasun-arduradunen identifikazioa.
 - Familientzat, kirolarientzat, teknikarientzat, arbitraje kidegoarentzat, osasun arduradunarentzat eta entitateko arduradunarentzat sortutako protokoloa eta informazio materiala, eta egokitzen jotzen den beste edozein dokumentazio.
- Jardueretarako erabiltzen diren kirol-guneen sarreran, aldageletan eta bereziki

estrategikoak diren beste leku batzuetan kartelak jarriko dira, prebentzioaren eta higiearen inguruan sentsibilizatzeko.

6.2. KOMUNIKAZIO/SENTSIBILIZAZIO ESPEZIFIKOAK

a) Parte hartzen duten erakundeak jarduerak hasi aurretik:

- Posta elektronikoko bidez bidaliko da:
 - Entitate antolatzailearen protokoloa..
- Bilera telematikoa egingo dira jarduerak eta lehiaketetan parte hartzen duten entitateekin eta haien osasun arduradunekin, neurri guztiak ezagutarazteko, haien eginkizuna eta konpromisoaren funtsa azaltzeko eta familien zalantzak edo kezak argitzeko.

b) Erakundeko teknikariak, jarduerak hasi aurretik:

- Posta elektronikoko bidez bidaliko da:
 - Erakundearen protokoloa.
 - Teknikoentzako informazio-materiala, haien betebeharrak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
 - Kirolarientzako informazio-materiala, teknikariek lehen saio/entrenamenduan beren ardurapeko kirolariei ezagutarazteko.
 - Nahitaezko higie-eta prebentzio-neurri pertsonalak ezagutu, onartu eta horiekiko konpromisoaren agiria. Jarduerak hasi aurretik sinatu beharko da.

Teknikariek bilera telematikoa egingo dira, neurri guztien berri emateko, haien eginkizuna eta beren jarduerak eta konpromisoaren funtsezko alderdiak azaltzeko, betetzen ez diren zehapenen berri emateko eta zalantzak argitzeko.

c) Familiak, jarduerak hasi aurretik (zuzenean erakunde parte-hartzaileen bitartekaritza gabe antolatutako jardueren kasuan bakarrik):

- a. Posta elektronikoko bidez bidaliko da:
 - Erakundearen protokoloa.
 - Familientzako informazio-materiala, haien betebeharrak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
 - Kirolarientzako informazio-materiala, familiek adingabeei ezagutarazteko eta kirol-elkartarekin batera sentsibilizatzeko.
 - Prebentzio-neurriak eta parte hartzeko baldintzei buruzko ezagutza-, onarpen- eta konpromiso-agiria. Jarduerak hasi aurretik sinatu eta entitateari eman beharko zaio.

Jarduerak talde guztiekin bilera telematikoa egingo dira neurri guztiak ezagutarazteko, haien eginkizuna eta konpromisoaren funtsa azaltzeko eta familien zalantzak edo kezak argitzeko.

d) Kirolariak (zuzenean erakunde parte-hartzaileen bitartekaritzarik gabe antolatutako jardueren kasuan bakarrik):

a. Jarduerak hasi aurretik:

- Familiak sentsibilizatuko dituzte prebentzio- eta higiene-neurriak betetzearen garrantziaz, kirolarien informazio-materialean oinarrituta.

b. Jardueraren/lehiaketaren lehen eguna:

- Epaileek zehatz-mehatz azaltzea Jokoaren Araudiaren arau eta arau-hauste berri guztiak, prebentzioari begira.

Protokoloaren edozein aldaketa, dela entitatearen borondatez, dela agintari eskudunen arau edo jarraibide berrien bidez, pertsona guztiei jakinaraziko zaie, gutxienez posta elektronikoaren bidez. Era berean, aldaketak garrantzi berezikoak badira edo hasieran hartutako neurriak nabarmen aldatzen badituzte, bilera telematikoak deitu ahal izango dira horiek azaltzeko/zabaltzeko. Ondoren, aldaketa horien berri eman beharko zaie kirolariei, kasuan kasu, zuzenean familien bidez edo teknikarien eta/edo arbitroen bidez.

7- PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Egoera berria denez, funtsezkoa da hartutako neurrien eta ikusten diren jarrera eta portaeren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea. Horrela, bilerak edo taldeko balorazioak proposatuko dira entitatearen maila guztietan.

7.1. ZUZENDARITZA ORGANOAREN BILERAK

Osasun arduraduna, entitatearen zuzendaritza edo administrazio organoaren bileretako kide izango da. Bilera horietan, nahitaez, gai zerrendako puntu bat izango da, entitateak COVID-19 delakoaren aurrean duen egoera eta jarduketaren balorazioa.

Ikasturte honetan egoera berezia denez, hilean behin gutxienez bilera bat egingo da. Ohiz kanpoko bilerak deitzen ahal izango dira edozein unetan edo maiztasun handiagoarekin, egokitzat jotzen bada, bereziki ikasturte hasieran.

7.2. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEETAKO OSASUN-ARDURADUNEKIN BILERAK

Behin ikasturtea hasita, bilera telematikoak egingo dira teknikariekin, neurrien ezarpenaren balorazioa egiteko.

7.3. JARDUERA PROPIOETAKO TEKNIKARIEKIN BILERAK

Ikasturtea hasitakoan, bilera telematikoak egingo dira teknikariekin, neurrien ezarpenaren

balorazioa egiteko.

7.4. TEKNIKARI ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK

Teknikariek, aldizka, COVID-19aren aurrean hartutako neurrien funtzionamenduari buruzko balorazio bilerak egingo dituzte taldeka eta, hala badagokio, jarreraren eta portaeren zuzenketaren balorazio labur bat.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Anoeta Pasealekua, 5, 20014. DONOSTIA
Tel: 943462514
www.gkef-fgda.org
info@gkef-fgda.org